



33. zENbAKia
HaRa, zu Eta Gu lau
GaRa!

0. AZALA

Kaixo, lagunok!

Oraingo honetan ere, gure lagunak emozioen inguruan murgildu dira, hau da, gure egunerokotasunean ezusteek eta sorpresek sorrarazten dizkiguten momentuen inguruan. Ezusteak eta sorpresak guztiz osagarri garrantzitsuak dira gure bizitzan eta, nola ez, gure haurren bizitzan. Haiek sorrarazten diguten egonezina, irrika, poza... eguneroko jatorduen pareko bihurtzen dira!

Gure lagunak adierazten diguten bezala, jakin-mina eta ezusteak jasotzeko aukerak eskaini behar dizkiegu helduok gure haurrei!

Ez ahaztu: irakurzaletasuna pizteko, estrategia bikainak dira ezusteak eta sorpresak! Beraz, hemendik aurrera, gure esku egongo da Irrien Lagunek eskaintzen digutena emozioz beterik eskaintzea!

Has gaitzen azala arakatzen!

Egin galdera batzuk haurrari: “Zer ikusten duzu?”, “zergatik atera dira kaxa horretatik gure lagunak?”...!

1. AURKIBIDEA

Atal honetako aldizkaria aurrean dugularik, aholkatzen dugu aldizkarian irrien lagunak nondik nora ibiliko diren jakiteko laburpena irakurtzea. Irakurtzen hasi aurretik, azaldu haurrari laburpenak zer-nolako garrantzia duen; izan ere, askotan ez dugu jakiten irakurtzen ari garen hori zertarako irakurtzen ari garen.

Gero, galdetu haurrari: “Nondik hasiko gara? Aukeratu zuk! Ziur nago bikain hautatuko duzula!”

2. PUPU ETA LORE

Irakurtzeko gogoia pizteko, ez dugu zertan beti irakurriz egin behar! Oraingo honetan, lehenik eta behin, margotzera animatu gura dugu haurra! Nola? Bada, horretarako, Pupu eta Loreren komikia fotokopiatzea proposatzen dizugu (zuri-beltzean, noski!). Ondoren, esan haurrari bion artean margotuko duzuela komikia!

Irakurketa nahi duzuen unean egin dezakezue. Margotu aurretik edo margotu ondoren!

Ondo pasa mahaspasa!!!



33. zEnbakiA
HaRa, zu Eta gu lau
GaRa!

3. OSASUNA GURE ONDASUNA

Hain ederrak diren gozokien inguruan aholkuak jasotzeko prest? Ea bada!

Hau proposatzen dugu, atala landu dezazuen:

- Lehenik eta behin, irudian erreparatzea proposatzen dugu. Irudia aurrean duzuela, komentatu etxeko logela bakoitzean zer ikusten den. Adibidez: hartu komuneko laukitxo eta egin galdera batzuk (“Zer ikusten duzu bertan?”, “globoek zer adierazten dizute?”...).
- Ondoren, aholkuak irakurtzen hasi aurretik, zati horren fotokopia bat ateratzea proposatzen dugu. Gero, aldizkariko Tiritatsoren aholkuak tapatu egingo ditugu, eta fotokopiako aholkuak moztuko ditugu.
- Amaitzeko, nahastu moztutako aholkuak, eta, banan-banan, bakoitza bere lekuan jartzen joango zarete. Bitarte horretan, aholkuak txandaka irakurtzea proposatzen dugu. Ez ahaztu, landu bertan dagoen informazioa!

4. PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Pirritx eta Porrotxen komikia irakurtzen hasi aurretik, honako galdera hauek egin ahal dizkiozu haurrari:

- Zer dira antxoak?
- Gogoko dituzu?
- Non erosten dira?
- Nola presta daitezke?

Ondoren, irakurri istorioa, eta bukatzean, egin galdera hauek:

- Zer sorpresa egin nahi izan dute gure lagunek?
- Zer gertatu da azkenean?
- Nork eman die azkenean sorpresa?
- Gogoko dituzu sorpresak? Zergatik?

Haurra antxoen inguruan interesaturik badago, erakutsi irudiak, nola presta daitezkeen, non erosten diren... Eta, nahi izanez gero, bazkarirako antxoak presta ditzakezu!



33. zEnbakiA
HaRa, zu Eta gu lau
GaRa!

5. ELEFANTE BAT HEGAN

Elefante bat hegan ipuina lasai-lasai irakurtzea proposatzen dugu. Irakurketa pausatua egingo dugu prozesu osoan:

- Lehenik eta behin, aurre ezagutzak landuko ditugu:
 - Izenburuak zer dio?
 - Erreparatu irudietan eta egin galdera hauek: badakizu itsasontzia nork egin zuen eta zertarako? Zergatik agertzen da elefantea itsasontziaren kanpoaldean?
 - Munduaren amaiera dela esatean, zer datorkizu burura?
- Gero, hasi irakurtzen, zuen erabakia izango da nork irakurriko duen. Aintzat izan, betiere, haurraren adina.
- Irakurketan zehar, egin geldialdiak eta galdetu gauzak, ulertzen ari dela ziurtatzeko.
- Irakurketa amaitzean, irakurritakoaren ondorio bat ateratzea proposatzen dugu, nola ez, galdera batzuk eginda:
 - Zer gertatu dela esango zenuke?
 - Zer gertatu zaio elefanteari?
 - Sartuko ahal zinateke itsasontzian, zure familia gabe, nahiz eta jakin munduaren amaiera datorrela?
 - ...

6. EUSKAL HERRIKO ANIMALIAK : HARTZA

Oraingo honetan, Euskal Herriko Animalien atalean, “Euskal Hartza” ageri zaigu. Galde iezaiozu haurrari elkarrekin irakurtzea nahi ote duen. Ez badu nahi, utzi lasai-lasai irakurtzen, eta, nahi baldin badu, lagun iezaiozu irakurketan ageri diren komak, puntuak, eta galdera- eta harridura-ikurrak irakurtzen. Amaitzean, galde iezaiozu jolas bat egiten lagunduko dizun. “Tribial” itxurako zerbait egitea proposatzen dugu:

- Hartu horri zuri bat eta marraztu laukitxoeren errenkada batez barraskilo bat.
- Margotu lauki bakoitza kolore batez.
- Gero, nahi duzuen laukitxoetan, egin besteengandik bereiziko dituzten zerbait (irudi bat, marra bat...).



33. zEnbAkia
HaRa, zu Eta Gu lau
GaRa!

- Ondoren, prestatu galderak —aparteko txarteltxoetan idatziaz, nola ez—, balearen inguruan jaso duzuen informazioaz baliatuta.
- Bereizitako laukitxoetan erortzean, idatzi dituzuen galdera horiek erantzun beharko dituzue amaieraraino iristeko.
- Amaierara lehenengo iristen denak, beste guztien besarkada jasoko du.

Jolasa prest dagoenean, gonbidatu zuen lagun, familiarteko eta beste, eta ekin jolasari!

7. MARTIN BERTSO

Marimototsen urtebetetzeak direla eta, hor dabilta Martin Bertso eta Marimototx, irrikaren inguruan hitz egiten! Irakur ezazue komikia lasai- lasai, eta amaitzean, elkar hobeto ezagutzeko, galdera batzuk egitea proposatzen dugu:

- Urtebetetzea iristean eta gertu dagoenean, zerbait berezia sentitzen duzu?
- Opariak zergatik egiten direla deritzozu?
- Gustatzen al zaizu opariak irekitzea?
- Urduri jartzen zara oparien aurrean?
- Normala al da oparia ireki eta triste sentitzea? Zer deritzozue?

8. EUSKARAREN ETXEA

Komiki honetan, Euskal Herria ezagutzera abiatzen zaizkigu gure laguntxoak! Euskal Herrian, dakizuen lez, euskalki askotarikoak ditugu! Gure izaera aberastu eta hornitzen duten euskalki anitz!

Horiek ezagutzeko asmoz, zenbait herri bisitatzera irten dira! Lehen geltokia Ondarroako herrian egin dute. Zer gertatu zaien ikusi nahi?

Irakurri bion artean komikia (pertsonaiak bananduz). Amaitzean, galdetu haurrari

- Ulertu duzu?
- Zein hitz ez duzu ulertu?
- Ondarroako arrantzaleak esan duena ulertu duzu?
- Hitz egiteko modu hori euskarak duen aldaera bat da; alegia, Ondarroako euskalkia. (Azaldu haurrari —ez badaki, behintzat— zer diren euskalkiak)



33. zENbAKia
HaRa, zu Eta Gu lau
GaRa!

Euskalkiak ezagutu eta entzuteko, ikastetxeko irakasle eta gurasoen artean dauden eredu ezberdinak gelara ekarri eta bien arteko berdintasunei eta ezberdintasunei erreparatzea proposatu nahi dizuegu.

Ezagutu gure identitatearen parte diren euskalkiak eta aberastu bihotzak eta arimak!

9. ZENBATAK

Zenbatak atala irakurtzeko txanda iristean, gure proposamena da haurrari laguntzea komikia irakurtzen; izan ere, zenbait zailtasun izan ditzake ordenari jarraitzeko. Irakurketa amaitzean, emaitza sorpresa edo ezusteko bat! Guk baino hobeto jakingo duzu zein izan daitekeen ezusteko hori!

Ezustekoa ematean, galdera batzuk egitea proposatzen dugu:

- Zer iruditu zaizu emandako ezustekoa?
- Gustatu zaizu?
- ...

10. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Lehenik eta behin, irakurri bion artean olerkia. Ziurtatu haurrak olerkiak ondo ulertu dituela eta behin ulermena ziurtaturik... Olerkitxo hauek irakurtzeko, Hamletek egiten zuen bezala egitera animatu nahi zaituztegu! Gaia “ezustekoak” izango da, eta horien inguruan errezitaldia prestatu beharko duzue!

Hamletek, bere olerkiak egiteaz gain, errezitatu ere egiten zituen, jendaurrean. Zuek ere gauza bera egitera bultzatu nahi zaituztegu!

Aukeratu publikoa eta prestatu ikuskizun dotore bat. Nahi izanez gero, mozorrotu ere egin zaitezket!

11. FILOSOFO TXIKIAK

Zer da sorpresa bat? izenburupean datoz gure filosofoak oraingoan. Zer proposatzen dizuegun? Bada, asmatzea gure lagunek zeri buruz hitz egingo duten beren elkarriketa irakurri gabe!

Esan haurrari gaineratik begiratuko duzuela testua baina ez duzuela irakurriko zertaz hitz egiten ari diren asmatu beharko duzuelako! Esan istoriora gerturatzeko gorritz dagoen izenburua irakurriko diozula. Asmatuak eta testuan datorrenak izango al dute zer ikusirik? Aurrera ba!

Istoria asmatu ondoren, esan zeuk irakurriko diozula ipuintxoal!

Bukaeran egin honako galdera hauek:

- Noiz sentitzen duzu jakin-mina?



33. zEnbakiA
HaRa, zu Eta Gu lau
GaRa!

- Sorpresen bat egiten dizutenean, urduri jartzeko joera izaten duzu? Zergatik? Gustuko duzu sentrazio hori?
- Gogoratzen duzu egin dizuten sorpresaren bat? (Konta dezala)
- Zer duzu zuk nahiago sorpresa prestatzea ala jasotzea?
- Zer uste duzu Xerrik egiten duen azken galderari buruz? (Irakur dezala eta ea zer erantzuten duen!)

12. MARIKALANBRE

Marikalanbreren komikian, esperimentu bat egin beharko duzue. Baina, horretarako, beharrezkoa izango duzue, lehenik eta behin, istorioa irakurri eta zer gertatzen den ulertzea, bai? Beraz, irakurri, nahi duzuen moduan, eta, irakurri ostean eta amonak egin duena ulertu ostean, saiatu zuek ere etxean horixe bera egiten!

Gogoratu garrantzitsua dela egingo duzuen esperimentuaren oinarriak ondo ulertzea; beraz, egiten ari zareten hori zergatik gertatzen den ondo azaldu haurrari, ados? Ideiak airean gelditu ez daitezten! Buruan baizik!

13. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

Ale honetan, Gure Nahia elkarteari buruzko informazioa emateaz gain, neskatoari gertatzen zaiona komikian irakurtzeko aukera ematen digute gure lagunek. Garrantzitsua deritzogu elkarteari buruzko informazioa eta Nahiaren istorioari buruzkoa irakurtzeari; beraz, biak irakurtzea proposatzen dizuegu!

Irakurketa librea egin dezakezue! Hala ere, haurraren ulermena ziurtatze aldera, hobeto zure konpainiaz irakurtzen badu. Eta, bakarrik irakurtzeko gogoia badu, egin galderak irakurritakoa ulertu duela argitzeko.